

J. Antonio Sagardoi

Laneko Zuzenbideko katedraduna

«Istripuei dagokienez, dramatiko da legeen eta errealitatearen arteko aldea»

Sagardoiren ustez, Arriskuen Prebentziarako Legea moldatzea baino ezinbestekoagoa da enpresaburuen artean lan osasuna errentagarria dela hedatzea

Ivan Santamaria

Juan Antonio Sagardoi (Pitillas, 1935) Madrilgo Complutense unibertsitateko katedraduna da, Laneko Zuzenbidean. Oso ondo ezagutzen ditu lan arloko legeak eta horrek izan duen garapen praktikoa. Besteak beste, Espainiako Langileen Estutuaren erredakzioan hartu zuen parte. Gasteizen izan zen joan den astean, San Prudentzio Fundazioak urtero antolatzen duen Lan Arriskuen Prebentziarako Forum.

Lan Arriskuen Prebentziarako Legea 1995ean onartu zen. Istripuen kopuruak, hildakoak eta larri zauritutakoak ez dule behera egin. Altitik, goranzko joera izan dute. Zergatik?

Legeek perfektuzkoak duten joera geurtzen du gero errealitateak. Kasu honetan, dramatikoak da legeak dioenaren eta errealitatearen artean dagoen alde handia. Espainian, esaterako, 22 milioi lan jardunaldi galdu ziren jaz, eta milatik gora pertsona hil ziren lanpostuan, ia hiru egun bakoitzeko. Iturburuak asko dira. Batetik, prekaritatea aipatu ohi da. Bestetik, prestakuntza falta. Arau batzuk ezartzean, administrazioek arinkeriaz jokatzen dutela esan ohi da, era berean. Ziurrenik, horiek guztiak gehituta, halako emaitza kaskarra ematen dute, baina enpresa kulturaren aldaketa da beharrezkoena. Enpresaburuek eta, batez ere, langileek giro onia izan behar dute lanategian, non osasuna eta lan ona aktibo oso errentagarritzat joko diren, eta ez zamatzat.

Egungo legediak eta arauak nahikoa dira? Aldaketak beharrezkoak dira?

Arriskuen Prebentziarako Legea, akaso, idealistegia izan liteke. Nik uste, gai zehatzak biribildu behar direla. Besteak beste, arriskuen auditoria bost urtean behin egin behar izatea eskandaluzkoa da. Enpresa gehienetan, finantzen egoera urtero ikuskatzen dute, eta ez dirudi as-

«Langileentzako giro egokia duen tokia izan behar du enpresak. Osasunak aktibo errentagarria behar du izan, eta ez zama»

«Enpresa batean arriskuen auditoria bakarrik bost urtean behin egin behar izatea eskandalua da»


«Langilea gustura eta motibaturik badago, produktibitatea igokoa da. Osasun politika egokiak dibidendu ikusezinak ditu»

takeria arriskuen ingurukoa mai-zago egitea, langileen osasuna eta bizitza jokoan daudela kontuan izanik. Horrez gain, praktika onak saritu behar dira. Bestela, prebentzio gaietan dauden neurriak egokiak dira, eta Europako legediarekin bat datoz.

«Praktika onak saritzeko pizgarriak behar dira, eta ez diru taguntzak». azaldu duzu. Zeintzuk dira pizgarri horiek?

Gizarte Segurantzako kotizazioak egitean, adibidez, ez da onargarria segurtasuna bermatzen duten enpresek eta ez dutenek tratu bera izatea. Hoberi batzuk izan behar dituzte. Bestalde, administrazio publikoek lanak kontratatzen dituztenean ere aintzat hartu beharko lukete prebentzio kontuak nola dituzten, eta betebeharrak betetzen ez dituzten enpresak baztertu.

Zure artikuluren batean jarrakurri duz duzula uste enpresaburuek prebentzioa serio hartzen dutenik. Etekin shaliki eta gehiena nahi duen enpresaburuari nola saldu ahal zaio segurtasunean inbertitzea errentagarria dela? Bi motibazio daude. Bata, soliki



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

ekonomikoa da. Lan istripu batek oso kostu handia du: lanaldi asko galtzen dira, eta langileen animoari eta ardurari begira kaltegarria da. Gainera, segurtasun neurrietan gehiago gastatu beharko du enpresaburua. Istripua ez da errentagarria, kontrakoa baizik. Eta gero beste alde dago: ukiezina. Segurtasun eta osasun politika egoki batek uzten dituen dibidendu ikusezinak. Ez da bakarrik hildakorik ez izaten saiatzea, haratago jo behar du. Lan baldintzak egokiak izatea, eta langilea gustura eta motibaturik badago, produktibitateak gorn

gingo du, eta horixe da egungo helburu nagusietako bat. Osalanek dio aldi baterako langileek istripuak izateko bi aldiz aukera gehiago dituztela. Ados? Dudarik gabe, baina prekaritatearen itzalean faktore asko daude. Uste dut gehiago sakondu behar dela, eta benetako drama langileen prestakuntza eza da. Lanera bidaltzen ditugu ondo prestatuak egon gabe. Aldi baterako egon arren, igeltsero bat oso ona izan liteke eta arduraz jokatu, betiere prestakuntza egokia badu. Baina, gehienetan, aldi baterako dauden langileek ez dute prestakuntza hori.

Ardura nagusia enpresaburuen esku dago, baina zer egin behar du langileak?

Batez ere, legeak onartzen dizkion eskubideak exijitu, eta asko dira, bere bizitza arriskuan dagoetaren itzalean faktore asko daude. Uste dut gehiago sakondu behar dela, eta benetako drama langileen prestakuntza eza da. Lanera bidaltzen ditugu ondo prestatuak egon gabe. Aldi baterako egon arren, igeltsero bat oso ona izan liteke eta arduraz jokatu, betiere prestakuntza egokia badu. Bataren errua ezin da berlindu bestearenekin, baina langileak arduraz jokatu behar zuten.

24 OCT 2004